

Abaltzisketa'ko artzantza*

(Shepherding in Abaltzisketa)

Balerdi, Yon de

[BIBLID \[1136-6534\(1995\) 11:7-24\]](#)

Txindokiren ondoan, Abaltzisketa herria (Gipuzkoa) eredu egokia da mendiko gizartearen azterketari ekiteko. Artzaintza da azterlan honen muina. Artzainaren komunitatea, inguru geografikoa eta habitata deskribatu ondoren, haren bizimolde gogorra aztertzen da, jarduera horrekin zerikusia duten zeregin arruntak bereziki arakatur. Amaitzeko, artzaina goraipatzen da eta horren jardueraren hainbat alderdi nabarmentzen dira, hala nola gaztagintzaren antzea, ardien motzaldia, neguko larrealdaketa eta horren jai-giroko alderdia.

Próximo al Txindoki, la localidad de Abaltzisketa (Gipuzkoa) es un buen ejemplo para el análisis de la sociedad de montaña. El estudio se centra en el pastoreo. Después de describir la comunidad, el entorno geográfico y el hábitat del pastor, se analiza la dura vida de éste, incidiendo especialmente en sus tareas ordinarias relacionadas con esta actividad. Se concluye ensalzando la figura del pastor, destacando su conocimiento en la elaboración del queso, el esquilado de la oveja, la trashumancia invernal y su aspecto lúdico-festivo.

Située à côté du Txindoki, la localité de Abaltzisketa (Gipuzkoa) est un bon exemple pour l'analyse de la société de montagne. L'étude est axée sur la garde des troupeaux. Après la description de la communauté, de l'environnement géographique et de l'habitat du berger, on fait une analyse sur la dure vie menée par celui-ci, en étudiant spécialement ses tâches ordinaires liées à cette activité. On conclut en louant la figure du berger, en insistant sur ses connaissances sur l'élaboration du fromage, la tonte des moutons, la transhumance hivernale et son aspect ludico-festif.

* *Anuario de Eusko-Folklore*, Tomo XV, 1955, p. 53-67.

Abaltzisketa da toki ikertua. Abaltzisketa, Gipuzko'ko erri txiki, apain, txit polit bat degu. Mendi batean gallur-gallurrean, edo obeto adieraztera emateko mendi gain batean dagola esan genezake: Aralar mendiko beso batean datza, Txindoki bere lur barruan duelarik. Iparraldean Orendaïn du, eta ego-alderuntz Aralar-mendi; eguzki-aldera Amezketeta eta sartalde-ra Gaintza eta Zaldibi'ko erriak.

Toki otza neguan, batez ere inguruko Txindoki eta Aralar'ko beste mendi arroak elurrez estaliak dagozenez. Ez da giro an neguan, ez ipar ez ego-aizeak baztarrak astintzen dituean. Udarako berriz toki bikaiñ, atsegingarri; ez otz ezta ere bero aundirik, gai-gaiñean baitago; epel-epel, oso toki egokia. Erritik urbil eta Txindoki azpi-azpian Larraitz'ko Ama Neskutsaren eleizatxo ain aipagarria arkitzen da, aritz urtetsu batzuez inguratua dagoelarik.

Lurra

Aralar'en ondoan arkitzen baita, ez da arritzeko ezberdin aundiak bere lurretan ikustea. Itz batzuetan esateko, Txindoki'tik zenbat eta gertuago, orduan eta lurra zakarrago; Txindoki'tik urrutiratzen geran era berean, ordea lurra ere gozatzen dijoakigu. Eta jakiña, lurraren egokitasunari begiratuaz -lurra ez baita egoki edozertarako; zerbaiterako, ots, artzantzarako egoki dan lurra, baliteke ba nekazaritzarako ain egoki ez izatea- gizonak alderdi batzuetan soroak egin ditu; besteetan, belardiak utzi ditu; toki batzuek, zugaitzez beteak; azkenik, artzantzarako ere toki berexiak autu ditu. Soroak, baten atzetik bestea, maldaren ezker-eskubian, txadon nagusitik bidean aurrera Orendaïn aldera goazelarik, batez ere, dakuskigu. Lur gizen eta beltza osotoro; nekazaritzako aukegarriena beraz. Alderdi ontan daude Abaltzisketa'ko baserri geyen-geyenak. Gogoan izan beardegu erri ontako etxe guztiak baserri direla, edo beste itz batzuetan esanik, biztanleak oro nekazariak dirala, ots, lur-lanetik bizi diranak, bost edo sei kenduta; auen artean bi apaiz jaunak, "sekretarioa", irakaslea eta Larraitz'ko bi "tabernerok". Soro auetan baserri batek bear duen oro izaten du: arto, gari ... beretzat; belar, arbi, eta abar, abereentzat.

Txadonetik Larraitz aldera gertuagotzen asten geran bezin laster lurra ere aldatzen dijoakigu; lur beltza gorritzen asten zaigu, lur au bestea baño gutxiago zaindua baita; soroak ere gutxitzen: bat edo besterik ez da ikusten tarte ontan, nekazaritzako ez baita izan ere ain egokia. Zuaiz banaka batzuek agertzen dira oraindik, an-emenka, geyenean aritz, gaztain urtetsuak. Ederki nabarmen da, orain urte batzuek, zuaiz askoz ere geyago zirala alderdi auetan. Gaur, garo toki bikaiñak dira.

Larraitz'tik Txindoki bitartean, berriz, belardiak dira ugarrienak, malloa asi baño len batez ere; bi piñudi eder ere badira belardi tartean. Belardi auek ez dira erriarenak. Auek baño goraxogo dauden belartokiak, ordea, erriarenak dituzte; eta belar mozketara garaiean, Garagarriaren erditik uztaren azken arte gutxi gorabera, baserri bakoitzari zirrindara bat banatzen die, txanpenez edo ordantzekatotan noski. San Migel'etik urteberri egun bitartean, berriz, artzaieri saltzen die zapi milla pesetan edo. Txindoki azpian esi bat ageri da; au, belarra nondik noraño moztu bear dan jakiteko neurria da: esitik gora ezditeke moztu; beera, bai.

Txindoki eta Gaztelu-mendien artean dagoen sakonaudia -oraindik Abaltzisketako erri-mugetan gabiltz- nekazaritzako on ez izan arren, artzantzarako berdiñik gabea degu. Emen dituzte izan ere artzaiaik beren txabolak, zokoren batean jarriak. Mallokoa baño belar gozoagoa bai, bañan belardietakoa baño ñañarragoa. Zuaizak ere, pago, aritz, zepa eta abar

ikusten dira noiz beinka, txabalinguruetan batez ere. Alderdi au besteak baño otzagoa degu, neguan behintzat; udan berriz, preskoagoa, sakonean baidago.

Ibairik ez du; bañan bai errekatxo bat Zaldibi'ko Amundarain ibaira dijoana: bere izena "Ibiurgarrotza".

Biztanle, etxeak ...

Seireun eta hamaika biztanle ditu Abaltzisketa'k; denak euskaldun, baita ere irakasle bera orain; eta euskera besterik ez da entzuten. Erria aunditzen dijoa poliki-poliki, arrotzik bertara etorri ez arren, jaiotzak eriotzak baño geyago ikusten baitira. Urtean iru edo lau iltzen badira, geyenak zartzaro betean, zazpi edo geyago aur jaiotzen dira.

Biztanle geyenak nekazariak dirala esan degu len, bat edo beste kenduta, badira ordea artzantzan dabiltenak ere, bañan auen artean batzuek, artzantzaz bakarrik bizi diranak eta besteak artzantzari utzi gabe nekazaritzan ere lan dagite-nak dira.

Abaltzisketan etxeak ez dituzu bilduak igoroko, txadon eta Erriko-etxe inguruan dauden amar etxeak bere eun biztanleekin, kenduta; beste etxe guztiak an-emenka, binaka edo irunaka sakabanatuak, iñoiz gutxitan bat bakarrik, arkitzen dira. Irurogei ta amar baserri dira guzian Larraitz'ko bi sal-etxeak zenbatuaz. Etxe bakoitzak sendi bat artzen du; amabi bakarrik daude birekin eta iru besterik ez irurekin.

Abereak

Aberetan ere, baserriarrik bai dira geyenak, oso aberatsa da Abaltzisketa. Ugariena ikusten diranak bei, idi, zaldi, beor, asto eta ardiak dira. Idiak lur-lanetan ibiltzen dituzte batez ere, beiak esne emanleak dira, baserriko lanetan idiei laguntzen ere die; zaldiak erritik esnea eta abar eraman edo ekartzeko; ortarako astoak eta beorak ere erabili oi dituzte.

Ardiak, mendietar larratzen dituzte gizonari aberastasun ugariak sortuaraziz. Ziatztasun osoarekin ez dago jakiterik zenbat abere dauden erri ontan, baserriarrik eta artzaiaik dituztenak baño gutxiago azaltzen baituzte Erri-etxean; izan ere, buruzko hainbeste ordaindu bear baidute eta jakiña... Bañan gutxi gorabera berrogei ta amabi idi izango dituzu; beiak, irureun ta amalau; zaldiak, irurogei ta amasei; astoak, amaika; eta milla ta bosteunen bat ardi. Idietan batzuek Pirineokoak dituzu; gorri-illunak batzuek eta beltz-beltzak besteak; ba-dira ere Santanderinok deitzen diegunak, urdin-argiak; eta Naparrak, gari-elduen margokoak. Beitan berriz, geienak Holandesak eta Suizoak dira; aiek pintoak eta auek urdin-beltzaranak; biak oso esne emaille bikaiñak. Ba-dira ere, Pirineokoak: gorrikkak, idien antz asko dutenak eta guztiz indartsuak diranak, baño esne gutxi, txala edo txekorra izaten dutenean bakarrik ematen dutenak. Auek mendi basoetan ibilli oi dira. Zaldi, asto, beor, ardiak ze azkazitakoak diran jakitea ez da ain errexia; beren jabeak ere ez bai dakite. Ardiak oro azkazi batekoak dirala ageri da: guztiak berdiñak bai dira. Bañan ze azkazitakoak? Ez ote dira Manex edo Latxa? Merinorik ez da ikusten behintzat. Azken urte auetan ordea, beste ardi mota bat, banaka batzuek bakarrik, azaldu dala diote: ardi onek mutur beltza du. Eta auekin goazen Abaltzisketa'ko artzantzaz zertxo bat azaltzea, agin detan ikerketari jarraituaz:

Artzantza

Abaltzisketan amabi artzai besterik ez dituzu; oso gutxi orain berrogei urte zenbat ziran gogoan ba-daukagu. Artzai

izanak diotenez, len Aralar mendia artzaiez josita omen zegon; Txabolak nun-nai ikusten omen ziran eta ardiak larratzen asten ziranean, len musker ziran belardiak, txuriz jantziak ziruditelarik. Bañan dana-dala, gaur artzai gutxi izan arren, ba-dira oraindik batzuek; ez da oraindik izkutatu artzantzaz erabat gure errietatik. Erri txiki eta goi xamarrekoetan kokatu da.

Amabi artzai auetatik sei dira artzantzatik bakarrik bizi diranak; besteak, artzai izateari utzi gabe, nekazariak dira berebat, baserrian lan dagite. Abaltzisketa'ko artzaiek beren ardiak, erri larretan dabiltzkie; erri-larre auek Txindoki eta Gaztelu mendi tartean dagoen zokoan dira. Emen sei edo zazpiren bat artzai izaten dira; besteak "Unio"ko larretan ardiak ibilli oi dituzte. On da jakitea Gipuzko aldeko Aralar-en hamabost erriak dituztela bakoitzak beren eskubideak, edo hamabost erri auetako artzaiek, ardiak Aralar'en larratzeko eskubidea dutela. Erri auen eskubideak zuzentzen duen bilduerari "Aralar'en Enirio'ko Unioa" deitzen zaio. Erri bakoitzak ba-du bada, erriko landetatik kanpo, beste larre-toki bat Aralar'en Unio'k agindutako alderdian. Alde geiena duena Amezketak da noski; gero, Zaldibi; Abaltzisketak ere zerbait ba-du; Orditiak txirrindara bat besterik ez du. Ataun'ek ere gauz aundirik ez, arri mugetan larre toki ugari bai-du. Eta horrela erri bakoitzak bere zatia du. Ara emen Unio'ko errien izenak: Abaltzisketa, Alzaga, Amezketak, Arama, Ataun, Baliarrain, Beasain, Gaintza, Ikaztegieta, Itxasondo, Lazkau, Legorreta, Ordizia, Orendain eta Zaldibi.

Aralar'ko artzantzari buruz lantxo bete-beteko bat egin naiko lukeanak, erri bakoitzak zein tokitan larratzen, toki auek ze izen duten, zenbat artzai dauden eta beste zenbait gauz gogoratu bearko litzuke. Baña ez naiz ni ortaraño iritxi.

Ez da arritzeko Aralar'en hainbeste eta ain toki askoeta-koak izateak; toki egoki eta berexia bai dezute Aralar artzantzarako. Mendi gallur-gallurrak kenduta, beste toki eta alderdi guzietan ibilli ditezke larrean ardiak. Belardiak oso ederrak dira. Mendi gañetan beraz ba-dituzu larratzeko toki bikaiñak. Oraingo artzaiek izenik ba-ote duten ez dakitela esan zidaten. Artzai izandako batek ordea, "Larrapideak" deitu oi zitzaizela agertu zidan. Eta ardiak nun larratzen zituzten jakin nai baldin ba-zuten, galdetzen omen zuten: nun dezu larrapidea? Saroiak goiko larretan bakarrik ikusten dira, ugari xamar gañera txabol inguruetan, baita ere urrutixago, artzaiek jeitzeko bildu oi dituzten larrondoetan. Neguko larretan ez da izaten saroirik. Neguan artzaiek al duen bezala moldatu bear izaten du, saroi-eza nolabait betetzeko: baserrietako ikulluetan utsik badaude, borda batzuetan edo egiten dituzten artegitan sartzen dituzte.

Bañan mendi goiko larreak ardientzat onak ba-dira, onak dituzu berebat beste abere askorentzat. Orregatik ikusi oi ditugu iñoizka mendi gañetan bai bei, bai beor batez ere; auntzak ere noiz edo noiz eta alderdi batzuetan bakarrik. Abere auek ez dira ardietatik urruti ibiltzen, ardiekin nastuak baño; toki berexirik ez bai dute beretzat; ardiak ibiltzen diran tokietan larratzen dute; nai duten larretara zabaltzen dira askatasun guztiakin ibilliaz an eta emen. Emen ez da beor zairik, bei zairik abereak zainduko ditunik; gauak eta egunak nai duten bezala eta gogozko zaizkien tokitan igarotzen dituzte. Naparroan ortarako gizon bat izendatua egoten da eta onek, beor zaia ba-da beorrek eta bai-zaia ba-da beiak goiz-goize-tik ateratzen ditu gaua igarotzen duten txaboletatik eta berak nai dituan larre-tokietara eramaten ditu, gaur onera eta biar arauntzago; eta egunez beti ernai dabil bere ondoan beor eta beiak urrutira joan ez ditezen; eta illunabarrean txaboletara ekarrarazten ditu.

Abere aundi auentzat: beor, zaldi, bei eta abar, txabol edo aterperik mendietan ez izanarren, Naparro aldean bezela, txe-

rri eta olloentzat batez ere ba-dira txerritegi eta ollotegiak egiñak. Auek geyenian artzai txabolari erantsiak daude. Oso apal eta txiroak, gizona makurtuta ibiltzea arkitzen da. Txabola bera ere ez da jauregi bat, ez da gutxigo ere. Ate estu eta apal bat, luzera 4 metro edo or nunbait, eta zabalera 2 metro geyenera jota. Atea baño len txabol geyenak izaten dute eskatz dirudin toki txiki bat; emen sua egiten dute artzai batzuek eta sutarako bear duen egurra ere ipintzen. Txabol barruan erabat illun dago. Artzaia sua egiten ari ba da begiak itxi bearrean izango da lendabizikoz sartzen ba-da behintzat: keak beartuko du laster ortara. Illunpean zerbait ikusten asiko danean, artzaiak bizitzeko zer gutxi bear duan dakus: ate ondoan ezkerretan su-tokia; eskubian, barruxamarrean lotarako oia; oiak orain arte txillarrezkoak izaten zituzten, txillarra sorta berdiñetan lurrean ipiñiaz, gañen koskak berdintzeko eta biguintzeko zaku zar batzuek: gorputza estaltzeko manta bat edo, eta ara emen artzayaren oia. Gaur ordea illezko oiak sortu dituzte artzai geienak.

Txabolaren atzexamarrean gazandegia arkitzen da: goiko ormatik zintzilik dauden apal batzuetan gazta saill bat dago, ketzen batzuek eta besteak saltzeko noiz eramango dituen zai. Txabolaren txoko batean berriz, gazta egiteko erabiltzen dituzten tresnak.

Artzaiek beren txabolak, berari gogozko zaizkien alderdian, egokiena legokela iruditzen zaien tokietan altxaterik ez dute. "Unio"k esaten dio artzaiari txabola nun egin; eta txabolaren bat utsik ba-dago, an sartzea beartzen du, beste bat eraiki baño len. "Unio"k begiratzen du bai batzuetan, txabola jaso baño len, an bizi bear duen artzaiek larrapidek nun dituen, eroso xamar izan ditzan ardiak zaintzen lan geiegi izan ez dezan. Txabol geienak toki izkutu, ospel, sakon, eta zuaitz inguruetan egiñak daude beroetan artzaiek kiskaldu ez ditezen. Lenago ordea, berak nai zituzten tokietan zegizkiten txabolak. "Guard"ari adierazi bear omen zioten lenago. Orduan izan ere, etzan "Unio"rik eta artzaiek nai zuten tokietan ibiltzea aski zuten. Ingurutxoan ere an izaten du bere iturritxo.

Ur-geldi inguruak oso txarrak dira ardientzat, baita sangaiak ere; ajeatu egiten bai dira ardiak, okilletik gaxo jarriak; okilletik gaxo daudela begietan batez ere ezagun zaie ardiei, gorrikatzen asiak izaten dituzte. Goizeko basura ere kaltegarri da ardientzat; auek "albatea" izaten dute. Orregatik artzaiek arreata aundiakin zaitu bear ditu ardiak basurakin jaten ari ez ditezen. Ardiak bada, berez alperrak izan da, eguneko bero kixkalgarrian "abaro-abaro" etzanda egoten dira, jateko gogorik ezda, eta denbora ozten edo epeltzen duanean jaten asten dira, illunabar eta goiz aldera batez ere, basura bete-betean dagonean.

Kaltegarri da gañera ardiak jetzi ondoren, aldapa bera larrera botatzea, gaxo erortzen dira eta. Aldapa gora, goiko larretara botatzera izaten da on ardientzat; burua gora begira bear baitute. Errena ere gaitz oso zabaldua da gaur artaldeetan. Artzairik ez da izango noski ardi errenik izango ez duenik. Zer dala ta? Ainbeste gauz! Toki txarretan ibilli diralako; toki arritsuetan eta lur bustian edo; jetzi ondoren aldapa bera ardiak botatzen dituztelako eta abar... Orregatik len esan bezala artzaiek arreata aundiz zaitu bear ditu ardiak gaxo erortzerik nai ez ba-du; beti begi aurrean izan bearko ditu. Artzai-izan batek zidanez, lenagoko artzaiek gaurkoak baño artzaia-goak omen ziran; berak ez omen zuan ezagutu bere ardietan, ez errenik, ez okilletik gaxotu zitzaionik.

Eta okerrena, nola sendatu? Sendagaiari buruz oso atzetuak daude artzaiek: berak aitortzen dute. Baliteke gauz oietan ikusi ditugun aurrerapenak bereganatzea. Bitartean emen

dabiltz artzaiak al duten bezala; batzuek errena sendatzeko, azkazala altsa eta toki minberatua "sulfato de cobre"kin igurtzen diote. Ortarako anak lejiar garbitzea ere oso ona da. Okilletik gaxo daudenak sendatzeko, "pildorak" erabiltzen dituzte; auek orain sartuak dira noski. Bañan beste zenbait gaxotasun ez dira, ifolaz ere sendatu ez litezkenak gaur? Orduan artzaiak zer egiten du? Gaxo jarri zaiola ikusten duan bezin laster, aiztoa sartu eta jateko izaten dute. Batean asko gaxo sumatzen ba-ditu denak etxean ezin jan da, txerriei edo beorreie bota oi dizkie, lenago arranoak bere atzaparretan tzikitzen ez ba-ditu, urrutitik etortzen dira-ba, aragi gaxo, ustelaren usaiera.

Otsoak izkutatu ziran bein-betiko Aralar menditik. Ez dira urte asko joan zitzaizkigula. Artzaiak, artzai-izanak batez ere, bildurrez oroitzen dira egun aietaz. Len artzaiak gaur bezain lasai etziran ez bizi. Txabolaren inguru guzian "zerkea" deitzen zioten arriz horma aundi xamar bat izaten zan, gauaz ardiak ixten zituztelarik.

Egunaz azaltzen bazan otsoa, errexago izaten zan ura uxatzea, edo lagun sailla baiziren bera iltzea. Orduen, otsoari zioten bildurrak eragin da, artzaia beti artaldearen ondoan ibilli oi zan egunez; eta gauero-gauero txabola inguruko "zerkean" biltzen omen zitun bere ardiak. Gaur, ez. Ardiak otsoa sumatzean erabat izuturik, igesari ekiten omen zioten, alderdi guzietara sakabanatuaz. Au ordea, beretzat kaltegarri zan, artzaiangandik urruti joaten baiziran, eta horrela, onei ardiak otsoagaidik zaitzea zaillago zitzaion. Ardiak biltzea eginkizun zailla omen zan artzaiarentzat.

Bañan otsoa gauaz ba-zetorren? Txabol ondoan su egiten zuten eta suaren ondoan beti bat txandaka, gaur bat eta biar bestea ernai zagoen otsoa noiz etorri zai. Otsoa etzan isill-isillik urbiltzen, artegira, marru luze ta ozen bat egiten zuen eta jakiña, ots ura entzutean, ardiak izutu eta "beeka" asten omen ziran, izkanbilla izugarria sortzen zalarik artegian. Orduan, su ondoan ernai zegoen artzaia otsoa urbiltzen zijoala usaitzean illati piztu bat eskuan arturik lasterka asten zan ara ta onera, eta orrela izutzen zitun otsoak eta toki ayetatik uxatzen.

Beorak ordea ayumaka eta irrirtzika asten ziran, lasterrari ekiñez jira-biraka asiaz ardiak bezela izuturik. Otso gose-tsuak, beorak nekatu arte itsoin egiten zun, eta beorra erabat nekaturik ikustean zuanean, gaiñera eroriz bere atzaparretan iltzen zuan.

Otsoak gure mendietatik anka egin arren, ba-dira oraindik goiko larretan batez ere, pizti batzuek noizean bein ardie-ri ortza sartzen dietenak, batez ere axaria. Gutxitan azaltzen da, baño agertzen danean lau edo bost ardiei bizia kentzen die. Onek otsoa baño gutxiago izutzen ditu artzaiak; ala ta guztiz ere, orain ba-dute artzaiak gizon bat, Zaldibi'n bizi da eta eiztari bikaña, urtean artzai bakoitzak amar ogerleko ordaintzen dutelarik. Axari bat edo beste piztiren bat azaltzen bada mendietan eta ardie-ri kalte egiten, artzaiak gizon eiztari orreri etortzeko esaten die, eta au artzaiaren deiera etortzera beartua dago; izan ere ortarako ordaintzen diote. Artzaiak oso pozik daude, eiztari oso ona omen da ta azari bat baño geyago bota omen ditu. Axari eizean "eskopeta" erabiltzen dute. Otso eizean berriz beor ildako bat ipintzen zuten otsoa igaroko zala uste zuten alderdian, bide-natean batez ere. Aragi ustelaren usaiera etortzen zan otsoa bere gosea asetzera, eta an jaten ari zan bitartean, izkutuan zegoen eiztariak "eskopeta" garbitzen zuan. Axaria pozoiaz ere arrapatzen dutela diote artzaiak.

Tupin-itsu edo orrelakorik ez dute ibiltzen orain artzaiak pizti gaiztoak uxatzeko.

Artzaiaren bizitza

Urtean zazpiren bat illabete egiten dituzte artzaiak mendi goiko larretan, beste bost illabeteak beko larretan igarotzen dituzte. Jorralaren azkeneko egunetan asten dira artzaiak beren ardiekin goi-aldeetara igotzen. Orrillaren amarrerako denak beren goiko txaboletan daude. Emengo artzaien gorabera auetan egoaldiak ze ikusi aundia izaten du. Jetxi berriz, geienak azaroaren asierako egiten dira. Azaroa asi eta egun jatorrak jarraitzen ba-dute oraindik egun batzuek an igaroko dituzte. Azaroaren amarrerako ordea, artzai bat ez da mendi goietan gelditzen. Eta berdin gertatzen da igotzekoan ere; negu txar-txar bat izan badute beranduago igotzen dira, eta negu ona izan badute lenago. Egualdiak agintzen du asko.

Artzaiak, batzuek bere sendiak in igotzen dira, besteak berriz, ez. Abaltzisketa'n ezdago artzairik bere sendiarekin igotzen danik. Eta au laster ulertzen da: erri ontako artzai geienak larrapideak erritik urbil dituzte, eta sei ez beste artzantzatik eta nekazaritzatik bizi dira. Ardi lanak amaitu bezain laster beren baserrietara itzultzen dira ango lanak egitera eta orregatik esan genezake beti etxean daudela. Artzantzatik bizi diranak asko mutilzar dira edo ezkongai. Zaldibi'ko eta Amezketa'ko artzaietan badira asko sendia berekin dutenak.

Erri auetan, geiako ba-dira artzaiak askoz ere Abaltzisketan baño, eta geiako berebat artzantzatik bizi diranak. Abaltzisketan aurtan igaz baño bi geiako ba-dira.

Gañera artzaiak bakarti bizi nai du mendiko bakardadean. Orregatik txabol batean artzai bat bakar bat besterik ez da ikusten. Txabol bat bierentzat edo geiagorentzat egiña, lenago oi zan bezela, ez dezu ikusiko. Artzai bakoitzak bere txabola du eta batek esan zidanez, artzaiak ez omen du beste artzairik bere ondoan ikusi nai: artzaia bera, baliteke; bañan artalderik gabe; au -artzaiak ardirik gabe- ez litekela ikustean, artzairik ere ez omen dute bere aldamenean nai. Bi batera biziko dira artaldea birena ba-dute, bestela zaill deritza.

Artzaiaren lagunik bikaiñ eta maiteena bere ardi zakurra dezu noski. Artzai bat zakurrik gabe ez dezu beifere ikusiko; beti bere ondoan du, naiz errira jetxi zerbait erostera, naiz ardiak zaintzen jardun, lotan ere bai, beti zakur leyala bere ondoan. Izan ere, bera baño lagun oberik ezduke artzaiak mendian. Ain ederki ezitu du berak nai duan oro daki. Keñu bat naikoa du artzaiaren nai nabaitu eta berealaxe betetzeko. Ez da bada arritzeko, berebill batek zakurra azpian arrapatu ziolako artzai batek esatea: Naiago izango nuen zazpi milla pezta ostu bazizkidaten. Zakur batek zazpi milla pezta! Batzuek zakur bat baño gehiago ibiltzen dituzte berarekin; zenbaterañoko artaldea duten, jakiña! Au jakitea, ots artzai batek zenbat ardi dituen, oso zailla izaten da; artzaiak iñoiz ez dute ziur-ziur zenbat ardi dituzten esaten, beti gutxiago azaltzen dute egia baño. Eun da berrogei edo berreunetik gora ez, esaten dute, naiz berreunetik edo irureunetik gora izan arren. Artzai bakoitzak bere berreun, irureun eta batzuetan lareun izaten ditu. Esan genezake bada bi milleta iritxiko lirakela "Unio"ko eta erri mugetan larratzen aritzen diran Abaltzisketako ardiak. Lenago artzai gehiago menditan ibilli arren, artzai bakoitzak oraingok baño ardi askoz gutxiago zituzten.

Artzaiaren egitekoak

Eta, zer dagi artzaiak mendian? Zein dira artzaiaren eguneroko egin beorak?

Ez dira auek berdiñak artzantzatik bakarrik bizi diran artzai eta artzantza eta nekazaritzatik bizi diradenenak.

Artzantzatik bakarrik bizi den artzaia –Abaltzisketan sei bakarrik dira– egun osoa mendian igarotzea beartua dago. Jeiki ta bereala ardiak biltzen ditu sarorian, eta jeitzen asten da. Jetzi ondoren ardiak larrera bialtzen ditu, eta bera gaztak egiten asten da. Bitartean txerri ta olloei jaten ematen die; txerriei gazura eta gazura dan garaian bakarrik txerriak izaten dituzte artzaiak; gero saltzen dituzte. Gosarixto bat egin ondoren, lo aldixto bat egiteko etzaten da oiean. Siestaren ondoan eltzea berotzen jartzen du bazkaltzeko, eta ardiei begiratu bat ematera joaten da, zakurra aldamenean duelarik geiegi urrutiratu diran edo ikustera. Bazkari-legea egin ondoren berriz oiean etzaten da. Arratsaldean edateko ura eta su egiteko egurra al duen tokitik ekartzera joaten da. Ketzen dauzkan gaztaiei itzuli bat ematen die ontzeko; eta txerri olloeri berriz jaten eman ondoren, ardi illea eskuetan duelarik, aria egiten asiko da eta artillezko galtzerdiak; edo beste lanik ez ba-du, artaldea nolamuz dabillen ikustea joango zaizu. Ilunabarrean ardiak bildu eta jertziko ditu; gero bialduko berriz larrera, orain ardiak gaua artegitik kanpo egiten baitute, otso garaian ez bezela. Ardi-biltze onek lanak ematen dizkio artzaiari; azkenean, bera gaztak egiten asten da eta auekikoa egin ondoren lotara joango da. Len artzaiak bi otordu bakarrik izaten zituzten; gaur iru gutxienez, eta gehiago ere bai berak nai badute. Eta ara emen artzaiaren eguneroko biziera.

Larunbatez edo egokiako zaion egunen batean errira joan-etorri bat eiten du aste guzirako jateko bearo duan oro ekartzera; bestela aste osoa mendian igarotzen du. Artzai batzuek, gañera, Ordizian asteazkenetan izaten dan azokara jeixten dira zerbait erosi edo saltzera.

Ez da berdiñ gertatzen artzantzatik gañera baserriko lanetan ere jardun bear duenakin. Beste sei dira auetakoak. Goizean goiz biltzen dituzte ardiak eta bereala jeitzen, jeizteko garaia baldin bada –bost illabetez jetzi oi dituzte ardiak–, eta gero gaztaiak egiten aritzen dira. Ketzen jarri ondoren, gosari txiki bat artu ta txerri olloekiko lanak egin da errira jeixten da baserriko lanak egitera. Egun osoa baserrian igaro ondoren igotzen dira goiko txaboletara, ta ardiak biltzen dituzte bereala gaztak egiten asteko. Gaua txabolan igarotzen dute. Jeizteko garaia ez ba-da berriz, noizean bein egunean igotzen dira mendira ardiak nolatan dabilten larre-tokitik urrutiratu diran edo ardirik galdu ote dan ikustera; baita ere ardiak beste artaldeko ardiakin nastu ote diran edo ez. Au batzuetan nork-berak egin oi du: besteetan, berak ezingo duanean, beste nor-baiteri, batez ere inguruko artzaien bateri esango dio egiteko. Bitartean bera baserriko lanetan ariko da, artaldea mendian larratzen ari dalarik. Artzai bira, nekazaritzari uzteke.

Gaurko egunean oiturarik ez da, larre eta artalderik bedeinkatzeko. Bakarrik, gaxotasun, izurrite edo artaldean kalte aundiren bat izan ba-dute, eta baita ere urtea larre belardientzat oso txarra gertatu bazaie, orduan deitzen dute erriko apaiza larre-toki eta artaldearentzat Jaunaren onspena irixteko. Artzaiak, oraindik gaurko egunean, sinismen bero eta sakonekoak dituzu; uste on guzia Jaunagan ipintzen dute, lur ontako gaitz, oker eta ez-bear guzietan. Gaurko artzaiak, aurrekoak bezela, Jainkozale, zintzo, jatorrak dira. Bañan oraindik badituzu artzaien artean zabalduak len-lenagotik datozkigun oitura batzuen aztarnak, sinismen batzueri itsasiak. Ara emen oitura bat: artzaiak artaldean, ardi-arkumeen artean akerra toki batzuetan, eta besteetan ari beltza sartzen dute. Zer dala ta? Artaldetik, arkume-arditatik, kalte, gaxotasun, gaitzak uxatzeko, esaten dutenez beintzat; itz batean, ardien aingeru zaindari bezela. Bañan au ez da artzaien artean bakarrik ikusten. Ez al dezute bein ere zuen etxeetako ollo-tegietan antzarra ikusi? Zer dagi an antzarrak? Zer dala ta jarri dute? Ba-du zer egin askoren ustean behintzat. Artaldearen

zaindari akerra dan eran, olloena antzarra da. Nork ez du sumatzen lenagotik datozkigun sinismen arrigarri auek gezur-sinismen direla? Ikustekorik ba-dute indar ba-daukate, gizonaren baitan bakarrik izan omen dute, diote batzuek. Bañan gogoan izan bear genuke beti orrelako iritzi bat eman baño lenago, oitura eta sinismen auek lenagotik, aspaldi-aspalditik gure arbasoen egun-egunetatik datozkigula. Jentillak ere, artzai ziran; sinisgabeak ordea eta oitura arrigarri asko izatea ez da batere gu ere arritzeko. Oitura aien aztarnak dituzte bada, gaurko auek. Eta gañera ez dira ain asmakizun txarrak. Otsoa garai aietan ugari asko zebillen Aralar´en; artalde batera azaltzen zanean, bidera oldartzen zitzaiona ardiak izuaz igesi anka zutelarik, akerra izaten zan. Au egia bada, akerra artaldeetan ematea ez da noski, gezur-sinismen bakarrik. Orduan, beintzat, ardiak zaintzen zitun akerrak.

Artzaiaren ondorioa

Eta artzaiak nor artzen dute oñordekotzat? Nola uzten dituzte artalde ta gauzak? Artzaiak, beste edonork bezela, zaartzen asten diranean, bere gauzak zuzen utzi nai izaten dituzte. Mutil zar baldin bada, eta oñordeko gertu xamarrekorik ez badu, geienean artaldea saldu egiten dituzte eta saltzean atera duten txanponarekin, artzantzatik aldenduz, bere aideetako etxe batean bizitzen jarriko dira. Abaltzisketako Sasiain zarrak egin duana: ardiak saldu eta irabaziekin Tolosa´n, illobatxo baten etxera bilduta dago. Etxeko jaun baldin bada berriz, seme-alabekin, oituraz seme zarrenari utziko dizkio ondorengoan, ots artaldea. Onek artzai izateko gogorik ez badu azaltzen, gogozko zaiolari ematen dio, naiz seme, naiz alaba, artzantzarako gogo duen bateri. Iñor ez badago, artzai mutil zarrak egin oi duana, dagi; artaldea saldu eta errian bizi-leku bat sortu. Beti gelditzen zaio artzaiari ondorengoak berak nai duanari zabaltzeko eskubidea.

Artzantzaren emaitzak

Artzaiak zer ateratzen du artzantzatik?

Gaztaiak egiteko era

Esnea marmita deritzaion ontzi batera jeitzen dute. Gero, txapazko irabazkuntzitik apatzera aldatzen dute; ontzi batean urtutako batzagia esnari bota ondoren. Irabazkuntzi onen zulo estuenean osin mordo bat jarri oi da esnea apatzera aldatzean. Jetzi ta bereala esnea epeltzen jartzen bearrik ez da izaten; esnea orduan, era onean egoten da ta. Bañan andik ordu batzuetara edo egin nai ba dute, esnea epeltzen ordu erdi bat edo ordu betean apatzean euki bear da. Esnea biltzen danean malatxaz –batzuk oraindik eskuz dagite– mami nastu bear da, me-me gelditu geldidño. Gero esne mami ibilli ura ontziaren ondarrera bultzatzen dute eskuz, gazura gañera atera dedin. Gazta bat baño gehiago egin nai badira, zurezko aitzo batez, obeto esateko epaikaz, gazta bakoitzari dagokiona ebakitzen dute. Eskuz egin nai baldin bada –orain geienak PRENTSAZ egin oi dute– apurka-apurka zumitzen mami estutzen dute gora ta bera itzuli batzuk emanaz. Amaitzeko gazta estutu eta gazura epel-epeletan azal egiten utzi piska bat; gaztaiari orain oi zaio gaztai itsura. Azala berdiñagoa ateratzeko zumitzen bi edo iru eman ondoren, gazta beatzeko azkazalez jorratzen da. Gero gazta eman oi zaio gain guztian. Eta azkenik garbituta gero, epeletan ipiñi oi dituzte txabol barruan; ketzen jarri oi dira. Ketzen dauden bitartean, egunero-egunero gaztari itzuli bat ematen dio, berak diotenez, azala gortu eta gazta ontzeko.

Gaztanbera ere egiten dute artzaiak, baño noizean bein, jai aundietarako bakarrik; egun-egunero ez. Gaztaiak errira saltzera, beor eta zaldietan eraman oi dituzte txanpon asko irabaziz.

Ardi mozketa

Oituraz San Antoniotatik San Juanetara egin oi da. Jondone Kepa-ren egunerako denak moztuak izaten dituzte. Emen ere ordea, egoaldiak zer ikusi aundia du. Egun otzak ba dira beranduago, egun beroak izan badira baño. Orain arte bost edo sei artzai biltzen ziran eta gaur nereak eta bai zureak ardi guztien ille mozketa egiten zuen; baño onek kalte asko zekarzkiela edo ikusirik, batzuetan artzaien artean asarreak sortzen zirala ta ille moztean ardia zauritzen zutelako edo, edo bestetan nik ez dakit zer dala ta, gaur artzai geienak, norberak, sendiko batez lagunduta, bere ardiekiko ille mozketa egiten du.

Negua

Eta negua nun igarotzen dute Abaltzisketa'ko artzaiak? Egunak ozten asten diranean eta izotza agertzeko dagonean; belarra ñañartzen, oritzen astean, ardiak ez dute ezer jatekorik eta negua urbiltzen dijoa bere elurrekin, orduan zer egiten du artzaiak? Goiko larrapideak utzi eta toki beroagoetara jeixten da ardiei janaria billatzeko. Abaltzisketa'ko amabi artzaie-tatik iru edo laurek erri inguruan igarotzen dute negua erriko larretan; beste batzuek Gaintza eta Abaltzisketa artean; larreak bukatzen dituztenean beko larretara jetxi oi dira, ez urrutira ez, Beasain, Zaldibi, Orditzi aldera. Beste artzaie-tatik berriz, bat Andoain, beste Bidania, irugarrena Albistur aldera, eta besteak Tolosa ingurura; eta horrela moldatzen dira neguko aroa igarotzeko. Erriak gañera zazpi milla pezetan edo Larraitz'tik gora dagoen maillotik bera artzai bakoitzari zati bana banatzen die. Emen len esan bezela urri asieratik ilbeltzera arte larratzen dituzte ardiak. Larraitz ondoan bi artzai ibilli oi dira urtearen asieratik orrillaren asierate.

Negu txar eta luzea ba-dute, bizia garratza eta zailla artzaiarena. Goian jatekorik ezta belardiak nunbait arkitzea beartua dago; eta esnea ematea nai ba-du, ez nola naiko belarra. Eta baserrietako nagusiak, artzaiaren bearra ikusiaz, izugarriko ordaña eskatzen die, eta artzaiak eman bear. Belardiko zenbat eskatzen dieten jakiteko gauz askori begiratu bear zaie: ze belardi dan, ze belar; paotsa edo frantzi belarra baldin ba-da beste belar mota batengatik baño gehiago eskatuko die; ze egunetan eskatuak ere asko esan nai du: belardi batek geiago balioko du jorraillaren azkenean ilbeltzaren asieran baño. Dana dala, belar soroaren nagusiak eta artzaiak bien artean konpondu bear dute zenbaten artu bear duen. Batzuek diru orde, arkume edo ardi baten ordañez artzen dute; besteak berriz, ainbeste gazta ematekotan. Erosten duten gutxi gora-bera berrogei ta amar ogerlekoz egiten dute eguneko. Artzai bat ez da izango, bere baserrien landa aundi eta ugari xamar ez ba-ditu beñepein, negu aroan ogei milla peztatik bera ordaindu bearko duanik. Askoek au baño geiago gañera, negu luze eta txar xamarra gertatzen ba-zaie. Orregatik, egun onak badira, aldutenak behintzat, al izango

duten leena igo oi dira mendi goiko larretara. Goiko larre tokiai larrapideak deitu oi zaien bezela, bekoei edo negukoei, alde-txeak deitu oi zaie. Orrela norbaitek jakin nai badu artzai batek ze larre izan dituen neguan, galdetzen omen du: ze aldetxe izan dituzu aurtent? Eta artzaiak erantzuten onak edo txarrak zer nolakoak izan dituen.

Esan ditugunetatik bada, artzaiari neguan bizitza garratza eta garestia egiten zaio. Eskerrak, ardiak ilbeltza otsailla artean umetzen asten zaizkiolarik. Arkumeak epailla aldean diru asko egiten dute; eta San Josetan sendi bat ez da geldituko bere arkumetxoan erosiko ez duanik. Arkumeak kendu orduko gañera, ardiak kentzen asten dira eta ordutik badaukate esnea gaztak egiteko baita ere saltzeko. Gazura ere saldu egiten dute, eta orrela asten dira piskana-piskana egin dituzten zor aundiak ordaintzen. Eta denbora ona duten edo ikusita, mendiruntz abiatuko dira, gaur bat eta biar bestea, jorraillaren bukaerako lenengoak, orrillaren erdirako azkenekoak. Bide zabal edo karreteratik igarotzeagatik, ainbeste txanpon eman bear dute. Artzai batek esan zidan irureun pezta or eman bear zituztela. Mendian, bide berexirik ez da ardientzat; gurdi bide-etatik igo oi dituzte.

Bilgura eta jolasak

Artzaiak, len esan bezela bakarti bikaiñak dituzute. Bañan ez al dituzte artzaiak beste gizonek bezela beren arteko jai, joku edo bildurarik? Jai aundi bat dala edo igande, Abaltzisketa'ko artzai batzuek behintzat –besteak erria gertuago dutelako beren sendietara jeixten zaizkizu– Igaratza'ra biltzen dira beste artzaiekin, amabietan igandero orrilla asieratik azaroaren asieraño izaten dan Meza deuna entzutera. Goiza anaitasun ederrean igaro ondoren, bazladuta gero “Jaietxean” sartzen dira eta arratsalde osoa, bertsotan edo kartatan jokatzten dute gañera.

Pelota sororik ez dute Abaltzisketa'ko artzaiak; ez da beste iñork ere nere ustez, Aralar'en. Len asko ziran emen; eta artzai zarrak eta artzai izanak batez ere pozez oroitzen dira garai batean ain ordu ederrak igarotzen zituzten jokuaz. Andoain aldean oraindik badituzu mordozka bat. Ara emen nola jokatu oi dan: jarri ditzagun bi artzai aurrez-aurre –lau edo geiagok ere jokatzten zuten– belarzarri zelai baten. Artzai bat emen eta bestea amar, amabost, ogeien bat metrora. Bi artzaien aurre-aurrean bi lerro dituzu. Aldamenetan ere, lau edo bost metro zabalera, beste bi; luzeran aurrean duten lerro batetik besteraño, erdian toki itxi bat gelditzen dalarik. Pilota jokuan asi ta, alde batean dagoen artzaiak beste aldean dagonaren lerroa igaro bear du, eskuz, jakiña. Besteak erantzun bear dio eraberean. Al duen urrutira bota deike pilota, bañan uts egingo du toki itxian sartzen badu, eta aldemenetako lerrotik kanpo pilota botatzten badu. Aurre-atzera nai duten guztia botatzea badaukate; baño aldamenetara eta toki lerrotu barrura, ez; utsa da ta. Begi ona bear garaille izateko, beste gauzetan bezela. Joku oietan denbora ona eta jai-egunetan batez ere, jokatu oi dute orain ere artzaiak Andoain'go inguruan eta beste toki batzuetan ere bai. Eta gañera aste-egunetan astia dutenean. Izan ere ainbeste denbora izaten dute artzaiak, mendian zer egiñik ez dakitela. Baño galdu da asko oitura au toki batzuetatik eta besteetatik erabat izkutatu da.